



Kristiñau langille gaztedia

Agustuko azkenengo domekan, larogei naziñooko ogetamar milla kristiñau langille gazte batu izan dira Erroman, Aita Santuaren aurrean euren kristiñau fedea autortuteko eta mundu guztiko kristiñau beargiñen alkartasuna sendotuteko.

Kongresu internazional onetako gauza ikusgarrien artean, ezin ixildu geinke azken eguneko batzarraldi aundia. San Pedro plazan, irureun milla gazte batu izan dira Aita Santuaren verbaldia entzuteko. Ango alegrantzia, ango poza, ango txaloak Jesukristoren ordezkorearen aurrean! Euskaldunak be, antxe egon dira, eta bertarañño eroan dabe euren biotzen adorea eta euskal dantzen alaitasuna.

Bere verbaldian, gauza bat ipiñi gura izan dau ondo agirian Aita Santuak: **Kristiñau Langille Gaztediaren espiritualismoa.**

Gaur egunean, gizon geienen eritxian, gitxi valio dabe indar espiritualak diruaren eta teknizismoaren aurrean. Katolikoñ artean be, bestela baitakoan sartu da uste ori, eta gure arteko askok —gizonezkoak atan— gitxi erixten deutse ventaja praktikorik ez dakarren edozein obra edo instituziñori.

“Seme-alaba maiteak —diñotse Aita Santuak gazteeri—, jakizue aundiak direala on egiteko daukazuezan posibilidadeak, zeuen kristiñau vokaziñoari bear dan moduan erantzuten badeutsazue. Ondo dakizuen lez, ez dago triunforik ekiñaldi barik. Eta espirituzko gauzetan, nagusi urteta oraindiño gatxago izaten da, sakrifizio getago eta gure buruen ukamen aundiago egin bear dogulako. Zuen ekiñaldi espiritual orretan, ez

dozue lan egiten, obari ekonomiko-sozial batzuk bakarrik lortuteko. Ori ez dozue naikoa. Beste edozer gauza baiñño lenago, beargiñen arimak irabazi nai dozuez Kristorentzat.”

“Ori konsegietako, J.O.C. (**Juventud Obrera Cristiana**) movimentuan sartuta zagozenok, alegin guztiak egiten dozuez, beargin gazteak ekanduen eta kulturearen aldetik ondo azi daitezarr eta bizitzearen egiazko zentzuna ezagutu dajen. Ardura aundiagaz irakasten deutsezue tentaziñoeri gogor egiten ta edozer zatarkeri alde eragiten. Begien aurrean ipinten deutsezue ze gauza ederra dan alkarren arteko laguntziñoa eta biotz zabaltasuna. Euren espirituak eta biotzak moldatu gura dozuez, eguneroko erantzunbearrakaz ondo konturatuta bizi daitezarr, eta edozein eginkizun egiteko, sekulako adorea euki daien.

Jocistak egiten daben lan espiritual oneri, “apostoladu guztiz praktikoa eta bearrekoa” deituten deutso Aita Santuak bere verbaldiaren beste leku baten.

Ikasi daigun emendik, gure erlegiñoarean indar espiritualak estimatzen eta euren frutuak beste edozein probetxu ekonomikoren gaiñetik ipinten.

Goratu daiguzan Kristiñau Langille Gaztediaren asmo espiritualak, eta aintzat artu daiguzan bear dan bestean, Eleiza Katolikoan, Jocisten antzera, diru barik, itxura aundiko obra barik, ixillean, espirituzko apostoladuan diarduen ainbeste ta ainbeste eleizgizon eta eleizemakumen sakrifizioak eta izerdiak.

INSTITUTO SEKULARRAK

Gure artean askok entzun dogu verba egiten **Opus Dei** dala ta ezjala. Bein baiño geiagotan esan deuskue Espainiako gobernuko ministru batzuk **Opus Dei**-koak direala. Baiña bearbada ez dakigu ondo, **Opus Dei** ori zer dan. Ez deusku inok esan, **Opus Dei** Instituto Sekular bat dala.

Instituto Sekularra... Gauza barria, eta izena oraindiño barriagoa. Orain amar urte direala, Aita Santuak emon eutsen izen ori, komentuetan sartu barik erreligiosoen iru votuak egiten dituen andra-gizonen alkartasuneri.

Gero ta geiago dira mundu guztian, Instituto Sekularren bizimodua artzen dabenak. Gertakuntza barri baten aurrean gagoz. Soziedade klase guztietako andra-gizonak Evangelioko bizitzea bizi gura dabe, eta euren apostoladuagaz "Eleizea errira eroan eta erria Eleizara."

Verba asko egin da aspaldion laikoen apostoladuaren gaiñean. Sazerdote beargiñen esperientziaren ostein batez-bere, problema onek interes aundia sortu eragin dau kristiñauen artean. Askok esan eben orduan, sazerdote beargiñen orde "erreligioso laikoak" joango zireala fabriketara. Periodikoak eurak be, aitatu egiten ditue lantzean bein Instituto Sekularrak. Eta ori gorabeera, gitxik dakie ondo, Instituto Sekularrok zer direan.

Artikulu onek argi apur bat emon gura dau euren gaiñean.

Gaurko kristiñauak apostoladurako bide barrien billa dabilta. Fenomenu au edonon ikusten da, eta duda barik ogeigarren gizaldiko katolizismoaren aparteko marka bat da. Oraingo mundua asko aldatu da, eta apostoladu metoduak be era berean barritzau bear dira.

Gogoan daukogu oraindiño Frantziako "sazerdote beargiñak" egin ebena. Fabriketara eurretara joan zirean lan egiten, beargiñeri Jesukristoren Barri Ona erroteko. Be-



«Misionera Sekular»rak Begoñan dauken etxea

arbada euren alegiña erdi alperrekoa izan zan, baiña beñik bein euren sakrifiziozko bizitzeagaz bidea zabaldu-

ta itxi eben euren atzetik datozanentzat.

Azkenengo amar urteotan, asoziaziño asko sortu dira kristiñau movimentu barri onetan. Eun urterik ona ibilli izan dira kristiñauak, erreligioso bizitzearen formula barri bat topa eziñik. Eta azkenean aurkitu egin dabe. Oraindik aurrera, mundutik urten barik, kristiñau perfeziñoa lortu al izango dabe, eta klase sozial eta bizibide guztietan penetraziñozko apostoladua egin.

ERROMAKO APROBAZIÑO

1947-an, Sede Santuak aintzat artu zituan ofizialki kristiñauen alegiñok, eta estatuto kanoniko bat emon eutsen asoziaziño printzipaleri. Orretarako, Aita Santuak "Provida Mater Ecclesia" konstituziño apostolikoa argitaratu eban. Alantxe agertu zirean Eleiza Katolikoan Instituto Sekularrak.

Aita Santuaren dokumentu onek urten ebanetik urtea amaitu orduko, larogetamabost asoziaziñok eskatu eben Instituto Sekularren estatutoa. Azkenengo zortzi urteotan, berreunek baiño geiagok egin dabe eskabide berori. Baiña Sede Santuak ez deutse emon daneri aprobaziño definitivua, geienak oraintsuko asoziaziñoak direalako. Ori gorabeera, gauza bat dago argi: gaur egunean Instituto Sekularren bitartez "irakitaldi" izugarri bat sortu da Eleiza Katolikoan, laikoen artean atan.

Frantzian berrogetamar Instituto Sekular baiño geiago ei dagoz, Erromako aprobaziñoa daukenak eta ez daukenak numeru orretan sartuta. Ezagunenak aoneexek dira: *Kleruaren Laguntzailleak*, *Pobreen Anai Txikiak*, *San Pauloren Kompañia*.

Españian be, asko dira olako asoziaziñoak. Ona emen banaka batzuen izenak: *Opus Dei*, *Institución Teresia-*

na, *Operarios Diocesanos*, *Sociedad del Sagrado Corazón de Jesús*, *Misioneras de la Realeza de Nuestro Señor Jesucristo*, *Misioneras Seculares*, *Alianza de Jesús por María*.

Ez dago zetan arritu ugaritasun onegaitik. Gauza normala da. Orainarte, sozioen numeruak ez dauko importantzia aundirik. Instituto geienak ez daukez eun lagunetik gora. Gaiñera, zabal-kunde momentuan gagoz, eta orregaitik edonon sortzen dira Instituto barriak. Askok ez dauke oraindiño Erromako aprobaziñorik, beste askok ez dabe iñoiz eukiko, eta ez gitxi dempocagaz alkarren artean batuko dira.

"OPUS DEI"

Instituto onek Madrillen euki eban bere asikerea, 1928-an, urriaren bigarrenean. Instituto guztien artean berauda, Sede Santuaren aprobaziñoa lenengo errezibidu dauana. Naziño askotako eleizagintariak indar egin eben Aita Santuaren aurrean, ainbat ariñen (1950 ean) aprobaziño ori lortuteko. Naziño orreetan ezagunak zirean, asko edo gitxi, *Opus Deiko* gizonak.

Euren apostoladua, Espaiñiatik astita, Italiara zabaldu da, Ingalterra, Alemania, Portugal, Argentina, Cuba, México, Chile, Irlanda, Colombia, Perú, Japon, Frantzia eta Iparramerikako Estatu Alkartuetara. 1954-an, eun zi-

A V I S U A

"ANAITASUNA"ren suskriziñoa pagetako fakturca errezibidu dabenak, biadudaiela mesedez dirua ainbat ariñen zuzenbide onctara:

Revista "ANAITASUNA"

PP. Franciscanos

ZARAUZ (Guipúzcoa)

rean euren etxeak eta seireun gitxi gorabeera sozioak.

Institutoaren asmoa auxe da: zabaldu soziedadeko klase guztien artean, intelektualen artean atan, Evangelioko perfeziño biritzea.

Opus Dei-k emakume errama bat dauko. Baiña alkarren artean errama biok ez dauke ezelan go dependentsiarik.

Gizonen artean sozio kategoria diferenteak dagoz, zelakoak direan euren obligaziñoak. Batzuk, ez asko, sazerdoteak dira.

Berau da lenengo Institutoa, sozio baten beatifikaziño kausea Erromara eroan dauana. Sozio ori RENFE-ko ingenierua izan zan. Bere izena, Isidoro Zorzano (1902-1943).

INSTITUTO SEKULAR BATEKO GAZTE BATEK ERANTZUTEN DEUSKU

—*Zer zarie zuek, Erreligiosoak, Klerikoak ala Laikoak?*

—Parkatu eidazu, baiña pregunta ori ez dago ondo eginda. Gu ez gara sartzen iru kategoría orreetan?

—*Ez zarie ba Erreligiosoak, komentuan bizi ezarren?*

—Ez, ez gara “erreligiosoak”, verba onen esangura garbian. Alan ta guztizbere, gure artean eta komentuetako erreligiosoen artean, ez dago diferentzia fundamentalik. Baiña “erreligioso” baten definiziño kanonikoan ez gara egokiro sartzen.

—*Ba-daukozue ezer, Irugarren Ordenak ez daukenik?*

—Gu ez gara ezkontuten, eta Evangelioko iru kontsejuak gordetako obligaziñoa artzen dogu gure gain: erreligiosoen antzera, pobretasunean, obedientzian eta kastidadean bizi gara.

—*Ba-dago diferentziarik zuen artean eta Ekintza Katolikoaren artean?*

—Ekintza Katolikoa ez da bizimodu estadu bat. Instituto Sekularrak barriz, estadu bat dira, eta euren bizimodua iraunkorra da.

—*Zuen artean eta erreligiosoen artean, sustraike diferentziarik ez badago, orduan zegaitik ez dozue errotan habiturik?*

—Soiñeko habitua errotea ez da bearrekoa, benetako erreligioso izateko. Gaiñera, gaur egunean, sarritan eragozpen aundia izaten da habitua, leku askotan apostoladua egiteko.

—*Baiña zuek ez zarie bizi alkarregaz. Komunitadean bizitea ez da bearrekoa ala?*

—Bai, bearrekoa da. Orregaitik, asko edo gitxi alkarren artean batuta bizi gara. Ez gintzakez kapaz izango bizimodu au erroteko, guztiz bananduta biziko bagiña. Temperamentu oso apartekoa euki bearko geunke orretarako. Duda barik, bearrekoa da guretzako, alkartasunezko bizitza, alkartasun ori batzuetan guztiz laburra izanarren. Gure Institutokoak illean ordu batzuk bakarrik alkarregaz egon al izaten gara. Nire ustez, aletin guztiak egin bear litzakez, gure arteko alkartasun au egunean baiño egunean estuagotuteko; eta ekipo bateko guztiak etxe baten biziko balira, oba.

—*Ela modu orretara beti biziko ele zarie?*

—Ezkontzea alde baten itxita, Evangelioko zelibatua elegidu badogu, zetan esan be ez, estadu barri au betiko artu bear dogu, ezkontuak matrimoniñoa artzen daben lez. Bestela, Instituto Sekularrak ez leukce luzaro iraungo eta frutu apartekorik emongo.

Baiña zuek ez dozue voturik egiten?

—Bai, egiten doguz. “Votu publikoak” ez baiña. Jaungoikoaren aurrean artzen dogun obligaziño oneri, batzuetan “donaziñoa”, beste batzuetan “promesea” naiz “juramentua” deituten jako. Baiña izena diferentea izanarren, bardiña da Jaungoikoari egiten deustagun gure buruen entregamentu osoa.

—Egia da, erreglamentu fижurik ez dozuela euki gura?

—Instituto askok ez ditue oraindiño euren erreglamentuak eskribidu. Baiña ori ez da, erreglamentuen kontra dagozalako, ezpabere oraindiño esperientzia geiago euki gura dabelako, erreglamentu fiju bat atara orduko. Instituto Sekularrak *a priori*-ko teorien kontra dagoz, eta ez dabe gura legearen kumplimentu azalekorik. Orregaitik, erreglamentu fiju bat idatzi baiño lenago, urteak igaro bear dabe, bizimodu barri au sendotuteko eta apostoladuko fruituak ugarituteko.

—Institutoan sartuta gero, beste ofizio edo bizibide bat ez dozue artu bear?

—Generalean, geure lengo ofizio edo profeziñoan jarraituten dogu, eta antxe egiten dogu al dogun apostoladua. Baiña eskandalua emoten daben bizibideak itxi egiten doguz. Oraingo profeziño askotan, danok dakigun lez, justiazko irabazien gaiñetik, beste diru asko eskuratu izaten da. Gu ezin geintez ibilli olako irabazpideetan. Oraindiño gitxiago txarrerako direan arazotan, esate baterako, gerreagaz, eutansiagaz, etc. zerikusi estua dauken zerגיñetan.

—Aparteko indarragaz esan deustazu len, Evangelioko bizimodua eroan

nai dozuela. Zuen espezialtasuna ez da ba “apostoladu modernua”?

—Guretzako gauzarik printzipalena, Evangelioko bizimodua eroatea da. Beste edozetarako baiño lenago, orretarako sartu gara Instituto Sekularran: Evangeliok bere agindu ta kontsejuakaz érakusten deuskun bideari jarraiturik, gure arimen perfeziñoa lortuteko. Onek ez dau esan gura, apostoladua guretzako gauza importantea ez danik. Gure bizitza guztia apostoladurako da. Bakotxak bere inguruan al dauan guztia egin bear dau projimoaren onerako. Baiña ez uste, jakez jantzita ibilli ta beste barik, mundua salvatuko dogula. “Apostoladu modernuak”, luzaroko zerbait egin gura badau, arima barruko espirituua bear dau. Instituto Sekularrak espiritu ori sendo ta ugari euki nai dabe.

Ibieta



«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus


PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskriziñoa: 12 peseta

ZINEMATOGRAFIA



Donostiako ziñe jaiak

Igaro dan garagarriaren (julioren) azken egunetan, zarata aundiagaz ospatu da Donostian Ziñearen Festival Internazionala. Urtean baiño urtean importantzia geiago artzen asi da Festival au, eta bildur barik ipiñi leiteke Berlin'en, Cannes'en eta Venezia'n ospatuten direanen alboan.

Euskalerriko periodikoak, Gipuzkoakoak batez bere, verba asko egin dabe aurtengo Festivalaren gaiñean. Baiña bearbada, ez dabe agirian ipiñi, bear dan bestean, katolikoak Festival onetan ukü daben partizipaziñoa.

Bere organízaziñoan sartu ezarren, parte aundia artu dabe katolikoak Festivaleko aktu guztietan, Ziñearen Ofiziña Katoliko Internazionalaren (edo O.C.I.C.'aren) bitartez.

Ofiziña onek, Sede Santuaren ardurapean, zuzendu eta gidatu egiten ditu mundu guztiko katolikoen ziñe aktividadeak.

Festival guztietan, O.C.I.C.'ak (edo "Oficina Católica Internacional del Cine'k) sari bat ematen deutso valore espiritual aundiena daukon pelikuleari. Importantzia aundia eukiten dau sari onek: batzuetan Festivaleko premio ofizialak baiño aundiagoa.

Donostiako Ziñe Jaietan, O.C.I.C.'ak juradu bat izentatu eban, pelikularik onena zein zan erabagiteko. Batzar orretan sartzen zirean Alemania, Belgika, Frantzia, Egipto, Ingalterra ta Espaiña-

ko ziñe espezialistak. Juraduak, "Ich suche Dich" ("Zure billa, nabil") pelikula alemanari emon eütson. Saria.


Domekan, Festivaleko azken egunean, "ziñearen meza" ospatu zan. Gente asko batu zan Santa Maria eleizan, meza ori entzuteko.

Antxe ikusi eitekezan Festivaleko autoridadeak, Espaiñiako zinematografiaren zuzendariak, extranjeruko eta naziñoako delegadu ia ia guztiak, eta Donostiara etorri zirean artisten artean kasik danak.

Guztien izenean, Susana Canales artisteak lora txorta bat eskiñi eütson Andra Maria Koruko, Donostiako Zaindariari.

Meza bitartean verba egin eban Radio, Zinema ta Telebisiñoaren Komisiño Episkopaleko sekretarioak, Calahorrako Obispo Jaunak. Verbal-dian azaldu eban zegaitik dagoan presente Eleiza Katolikoa Ziñe Jaietan, eta zegaitik sartzen dan ainbeste ziñeko guzeten.

Festival Internazional onetan, O.C.I.C.'aren zeregiña aundia izanarren, ez dira orregaz kontentu egon katolikoak. Donostiako Ziñe Klube-koak, Ziñe Jakintzearen Lenengo Kursua atondu dabe. Ikastaldi onen zuzendaritzan parte artu dabe, bakoetak bere arloan, Madrilleko Ziñe In-vestigaziño eta Experientziatzko Institutoak eta O.C.I.C.'aren Delegaziño Nazionalak. Asko izan dira ikasleak: 108, Espaiña ta Portugaletik eto-riak.



AASTE - BORRASTE

EGIPTO'KO KRISTIÑAUAK

Egipton 18 milloi mahometano artean, 4 milloi kristiñau bizi dira. Geienak, zismatikoak dira baiña. Minoria aundia izanarren, ez dauke ezelango influentziarik naziñoko bizitzan. Danok dakigun lez, gaur egunean nazionalismo izugarria sortu da egiptoarren artean. Kristiñauak be, gogoz sartu dira movimentu orretan. Gobernu mahometanoak begi onakaz ikusten dau kristiñauen alegiña. Askotan deklaratu dabe agintariak, "aberri danontzako" eta "erlegiñoa Jaungoikoagazko kontua" dala. Ori gorabeera, Egiptoko kristiñauen zoriona ez da guztizkoa. Gobernuak estutu egin deutse oraintsu eskoletako libertadea. Aurrerantzean kristiñauak be, Koran-a (mahometarren liburu santua) ikasi bearko dabe euren ikastetxeetan.

ROMY

Aurtengo urtarrillean (eneruan) Romy izena ipiñi deutse 500 umeri Alemaniako Nuremberg errian. Noraiño eldu dan "Sissi" pelikulearen influentzia! Film au ikusi dozuenok ba-dakizue, artista printzipalari Romy Schneider deritxola.

MATRAKEA

Alemaniako soviet alderdian, berreundaberrogetamar rádioemisorá dabil-

tza, gau ta egun, beste alderdiko radio estaziñoeri embarazu egiten.

CHINA

Orain, 1957-an, oso gitxi dira Chinan dagozan misiñolari katolikoak: Obispo bakar bat, lau sazerdote sekular, zazpi erreligioso eta amaika erreligiosa. Orain bederatzi urte, 1948-an, askoz geiago zirean: irurogetamar obispo, iru milla ta ámabost sazerdote, bi milla irureun ta berrogetamaika monja, eta laureun ta irurogetamabost hermano.

UNIVERSIDADEA

Dakar, Afrikako Atlantiko aldeko erri aundi bat da. Araxe joango ei dira aurten atunetan Bermeoko arrantzaleak. Portu eder bat dauko, aurreerakuntza modernu guztiakaz ornidua. Orrezaz gaiñera, universidade aundi bat egingo dabe laster, bertakoentzat eta hispanoamerikanoentzat.

ERREGALU EDER BAT

Frantziako katolikoak maleta-kapilla bat bialdu deutse Kardenal Mindszentty'ri, meza santua egokiago esateko. Kardenala Budapest'en bizi da Estadu Alkartuetako embajadan, eta oraiñarte mezea esateko ogi ordinarioa erabilten izan dau eta kalizaren ordez kristalezko vaso bat.

MUNDUAN ZEAR



Lourdes'eko Basilika Barria

Datorren urteko zezeillaren (febreruaren) le-
nengorako amaituko dabe Lourdes'eko basilika
barria. Eleiza au lur azpian egiten dabilta. Lu-
zeran 200 metro daukoz, eta 80 zabaleran. Erro-
mako San Pedro eleizeak baiño apurtxu bat gi-
txiago.

Barruan arrain baten antza dauko. Itxura ori
emon deutse, arraiña Kristoren simbolua dalako.
Ain aundia izanarren, eleizeak ez dauko kolum-
narik.

Datorren urtean zelebretan da Lourdeseko
apariziñoen eunurteurrena, eta ori dala-ta zazpi
edo zortzi milloi pelegriño joango ei dira bertara
munduko alderdi guztietatik. Oneexek dira beñik
bein kalkuluak.

Ainbeste gente bear dan moduan errezieta-
ko, asi dira Lourdeseko agintariak neurriak ar-
tzen. Ura ekarteko bakarrik, 250 milloi franko
gastatu ditue. Bidebarri zabalak egin dabez. Ofi-
zina postal barri bat jaso. Aeroportua, 70.000
pasajeru artzeko moduan zabaldu: igaz 18.000
pelegriño etorri zirean aeroplanoz Lourdesera.

Momentu onetan, 310 pelegrinaziño dagoz sen-
daro artuta datorren urterako. Aprillaren 13-an,
itsuen pelegrinaziño bat egongo da, eta agostua-
ren 4-an beste bat gormutuena.

Lurrazpiko obrea egiteko, 5 milloi dolar bear
izango dira, eta mundu guztiko kristiñauen di-
ruaz egingo da. Afrikako baltzak be bialdu di-
tue euren donatibuak.

Basilika barria San Pio Amargarrenari dedi-
katua izango da, eta al bada, Aita Santu onen
erlikiaren bat gordeko da bertan. Aita Santu
bat ilten danean, erre egiten dira berak erabili
dituan gauza guztiak. Auxe da Vaticano'ko oi-
turea. Baiña San Pio Amargarrenaren arrebak,
nebearen solideo bat gorde eben. Buruko prenda
ori Parisen dago orain, eta Lourdeseko eleiza ba-
rria amaituten danean, bertara eroango ei dabe.

Obra au egiteko, difikultade tekniko aundiak
igaro bear izan dira, batez-bere urre urtean erre-
ka bat doalako. Baiña eragozpen guztien artean
nagusi urten dau Monseiñor Theas'ek, Lourdes-
ko Obispoak.

Ain baten, Euskalerritik be pelegrinaziño as-
ko joango dira datorren urtean Lourdesera. Ez li-
tzake txarto egongo, gentea oraintxetik arako
dirutxua aurreratuten asiko balitza.

Euskaldun Gurasoak,
zeuen umeentzako kristiñau ikasbide
errez errez bat gura badozue, eskatu
"KRISTIÑAU KATEZISMOA"
ANAITASUNA-ren euskera erzezean
egitiñiko liburutxu polita
Salgei:

Librería Verdes
Correo. 7
BILBAO